**LAGen BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONESPENARI DAGOKIONEZ AURKEZTUTAKO ALEGAZIOARI EMANDAKO ERANTZUNA.**
CONTESTACIÓN A LA ALEGACIÓN PRESENTADA A LA APROBACIÓN INICIAL DE LA REVISIÓN DE LAS DOT.

| | |
|---|---|
| **Alegazio zenbakia**:<br>Alegación nº: | 47 |
| **Nork aurkeztu du**:<br>Presentada por: | Reserva de la Biosfera de Urdaibai |
| **Aurkezte-data**:<br>Fecha de presentación: | 20/06/2018 (FUERA DE PLAZO) |

Ezer baino lehen, eskerrik asko aurkeztutako alegazioarengatik, sentsibilitate guztiak jaso eta ahalik eta adostasun handiena lortzen duen EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen dokumentu bat eskuratzeko zure ahalegin eta interesari dagokienez.

Cabe iniciar agradeciendo la alegación presentada en lo que supone un esfuerzo y un interés de cara a disponer de un documento de Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV que recoja todas las sensibilidades y aúne el máximo consenso.

**A. Egindako alegazioen eduki laburbildua eta horien balorazioa.**

**A. Contenido resumido de las alegaciones y valoración de las mismas**

1- Helarazitako dokumentuan adierazten denez, LAG gidalerroak Berrikusteko dokumentuaren azterketa burutu da hark Urdaibaiko Biosfera Erreserban izan ditzakeen eraginekin eta hari buruzko legeria espezifikoarekin lotuta. Amaitzeko, ondorioztatzen da LAG gidalerroen Berrikuspena bat datorrela Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean eta Erabilera eta Kudeaketari buruzko Plan Gidarian (EKPG) ezarritakoarekin. Edozein kasutan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuaren antolamendu eta kudeaketa espezifikoa argitu dadila eskatzen da, “Gidalerroak ingurune fisikoaren antolamenduan” izeneko 3. artikuluko 4.a.2) puntua berridaztea proposatuz.

**1-** El documento aportado señala que se ha realizado el análisis del documento de Revisión de las DOT en lo referente a las posibles afecciones del mismo al ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y a la legislación específica sobre la misma. Concluye que la Revisión de las DOT se adapta a lo establecido en la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la RBU y al Plan Rector de Uso y Gestión (ORUG). En todo caso se solicita que se clarifique la ordenación y gestión específica del ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, proponiendo una nueva redacción del punto 4.a.2) del artículo 3 “Directrices en materia de ordenación del medio físico”.

**Balorazioa:**

Aipatu puntuaren idazketa berria egokitzat jo da. Horrenbestez, jarraian adierazten den moduan gaineratuko da, egindako proposamenaren arabera:

*2. Lurralde plangintza partzialak antolamendu kategorien zonifikazioa eta baldintzatzaile gainjarriak mugatuko ditu, eta dokumentu honetan ezarrita dagoen erabileren erregulazioa bere eremu*

**Valoración:**

Se ha considerado adecuada la nueva redacción del citado punto por lo que se incorporará como sigue, según la propuesta realizada:

*2. El planeamiento territorial parcial delimitará la zonificación de las categorías de ordenación así como de los condicionantes superpuestos, y adaptará la regulación de usos*

*funtzionalaren arabera egokituko du. <u>Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako guneren bat badago, horien sektore-legerian jasotako zonakatzea eta erabilera-arauketa txertatuko ditu.</u>*

*establecida en este documento a su área funcional. <u>En el caso de que dentro del ámbito del planeamiento territorial se halle algún espacio protegido por sus valores ambientales o la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, éste incorporará la zonificación y regulación de usos recogida en la legislación sectorial específica de los mismos.</u>*

**B.ondorioa**

Ondorio gisa, nabarmendu beharra dago egindako ekarpen eta hausnarketen bidez helarazitako interes maila. Ekarpen horiek dokumentuaren edukia aberasten lagunduko dute; beraz, eskertzekoa da dokumentua egitean izandako partaidetza. Aurkeztutako alegazioaren ondorioz, dokumentuan honako zehaztapenok barneratuko dira:

- “Gidalerroak ingurune fisikoaren antolamenduan” izeneko 3. artikuluko 4.a.2) puntua eduki honekin idatziko da:

  *Lurralde plangintza partzialak antolamendu kategorien zonifikazioa eta baldintzatzaile gainjarriak mugatuko ditu, eta dokumentu honetan ezarrita dagoen erabileren erregulazioa bere eremu funtzionalaren arabera egokituko du. <u>Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako guneren bat badago, horien sektore-legerian jasotako zonakatzea eta erabilera-arauketa txertatuko ditu.</u>*

**B. Conclusión.**

Como conclusión, debe destacarse el grado de interés mostrado a través de las aportaciones y reflexiones realizadas, las cuales contribuirán a enriquecer el contenido del documento, por lo que se agradece la participación en la elaboración del mismo. Como consecuencia de la alegación presentada se introducirán en el documento las siguientes precisiones:

-El punto 4.a.2) del artículo 3 “Directrices en materia de ordenación del medio físico” se redactará según el siguiente texto:

*El planeamiento territorial parcial delimitará la zonificación de las categorías de ordenación así como de los condicionantes superpuestos, y adaptará la regulación de usos establecida en este documento a su área funcional. <u>En el caso de que dentro del ámbito del planeamiento territorial se halle algún espacio protegido por sus valores ambientales o la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, éste incorporará la zonificación y regulación de usos recogida en la legislación sectorial específica de los mismos.</u>*

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroan
En Vitoria-Gasteiz, a noviembre de 2018

*Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-berroneratze Zuzendaritza*
*Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana*